



BERTAKO ZAPOREAK ZURE ESKURA



JOSUNE CARRION GALARTZA

Atzo, hau da, urriaren bederatzian, jakin nuen, goizean goiz, utzi gintuzula betiko, gaixotasun luze eta gaizto baten ondoren. Min eta atsekabe handia hartu dut.

Bizitzak aspaldian banandu gintuen eta bakoitza bere aldetik eraman. Zoritxarrez, azken hamarkada hauetan ez dugu elkar ikusi, baina horrexek gauza on bat behintzat ere badu, alegia, horri esker orain dela berrogei urte bezalaxe gogoratzen zaitut: neskatxa gaztea, hemezortzi-hogei urtekoa, garaieraz txikia, baina bihotz eta irribarrez handia.

Izan ere, garai hartan, orain dela gutxi gorabehera berrogei urte, Irurtzungo dantza taldean ezagutu genuen elkar, entseguetan eta emanaldietan. Dantzari arin, malgu eta zalua zinen, baina, deus baino lehen, pertsona atsegin eta goxoa; alai eta irribarretsua.

Hantxe aritzen zinen, gainerako lagunekin dantzaz, gogotik, nekaezin, zintzo: Iribasko ingurutxoan, zinta-dantzaz, arku-dantzaz, Eltziegoko dantzaz eta abarretan.

Oso gazte joan zara; gazteegi! Zure konpainiarik gabe utzi gaituzu. Hegoa haizeak, etorri, eta hegan eraman egin zaitu.

Besarkada estu bana familiakoei eta lagun guztiei! Zuri, Josune, musu handi bat, bukaerarik gabekoa, eta txistu doinu gozoak, dantzaz jarrai dezazun zeure larre eta zelaietan.

Honelaxe gogoratuko zaitut beti, Josune: gazte, alai, atsegin, jator, arin, zintzo, eder, irribarretsu eta hegalari.

Muuuuuuua!

Xanti Begiristain Madotz, Auritz.



UDALA LEKUNBERRIKO GUARDIA ZIBILAREN KUARTELAREN ERAIKINAREN JABEA DA, BAINA EZIN DU ERABILI, ZEIN DA ARRAZOA?

2003-2007 legealdian, UPNk kudeatutako Nafarroako Gobernuak, Espainiako Gobernuak eta Lekunberriko Udaleko buru zuen Jose Mari Aierdik negoziazio prozesu bat gauzatu zuten gaur egungo Guardia Zibilaren kuartelaren kokalekuaren inguruan. Horren ondorioz, Espainiako Gobernuak gaur egungo kuartelaren eraikina permuta bidez aldatu zion Nafar Gobernuari Lekunberriko poligonoko lur batengatik. Berehala, Lekunberriko Udalak Guardia Zibilaren kuartelaren eraikina bereganatu zuen Nafarroako Gobernuari 226.010,02 euroren truke erosi ondoren.

Lekunberriko EH Bildutik ikusten dugu negoziazio eta elkarlanaren azken helburua kuartela poligonora pasatzea zela, baina ez zen gauzatu. Gaur egun, aipatu dugun moduan, kuartelaren eraikinaren jabetza Lekunberriko Udalarena da. Salerosketa kontratua 2007. urtean sinatu zuen garai hartan alkatea zen Jose Mari Aierdik, eta orduan hitzartu zutena aztertu ondoren, ikusten da eraikina dohainik eta mugarik gabe erabiltzeko utzi zitzaiola Guardia Zibilari, poligonon kuartel berria egin arte.

Aipaturiko datu horietako asko azken hilabete hauetan lortu ditugu, baita gure galderei Lekunberriko Taldeko buruak emandako erantzuna ere: *"Guardia Zibilak ez dio Lekunberriko Udalari alokairurik ordaintzen; salerosketa egiterakoan hartutako akordioaren baten ondorioz izango dela pentsatzen dut".* Adibide moduan, Leitzako Maxurrenea kuartela erabiltzeagatik, Espainiako Gobernuak Nafarroako Gobernuari 30.000 € inguru ordaintzen dizkio urtero.

EH Bildun, gaiaren informazio bilketa egin dugu eta beharrezkoa ikusi dugu operazio honen berri ematea, Udalean ez baita gaia lantzen. Nor izan da onuraduna akordio honetan? Zertarako erabiltzen ari dira herriko baliabide publikoak? Zer-nolako ondorioak izan ditzake egindako operazioak? EH Bildutik epe motzean gaiaren inguruan neurriak proposatuko ditugu, eta airean egon daitezkeen galdera horiei eta beste askori erantzuna ematen saiatuko gara.

Lekunberriko EH Bildu.

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.



- 04 ESKOLATIK MAILOPERA
- 05 BERTSO BERRIAK: Joxe Mugiro.
- 06 ELKARRIZKETA: Araizko Zaporeak.
- 10 ELKARRI MOKOKA
- 11 KUXKUXEAN: Azaroko zorion agurrak.
- 12 BATZARRE
- 14 LUZE ETA ZABAL
- 16 ERREPORTAJEA: Elizak egindako inmatrikulazioak.
- 20 KULTURA
- 22 KIROLA
- 28 PLAZATIK PLAZARA: Beteluko Uholde Jarduketa Plana.
- 30 KONTU TXIKIAK

• MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

• ARGITARATZEN DU:

Mailope Kultur Elkarteak.
L.G.: NA 719/93
Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esaneren erantzukizunik.
issuu.com/mailopealdizkaria

• ERREDAKZIOA:

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

• ARGAZKIAK:

Labrit, J.A. Garaikoetxea, Ricardo Bosch, Araizko Zaporeak, Ibarberri ikastetxea, Lontxin Zubillaga, Vega Botello, Beteluko Udala, Mensialdea Mankomunitatea, Etxepare Saria, Ttuturre Kirol Elkarteak eta Errigora.

• PUBLIZITATEA:

Labrit Multimedia - 948 210 103 - mailope@labrit.net.

• MAKETAZIOA: Araitx Amatria.

• TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, Kontzejuak eta bazkideek babestutako aldizkaria.



MAILOPE EUSKARALDIAREKIN BAT!

IBARBERRI



Eskerrik asko Mari Karmen!

Ibarberri eskolako irakasle, ikasle eta langile guztiok, eskerrak eman nahi dizkiogu Mari Karmen sukaldariari, horrenbeste urtez gurekin lanean egoteagatik. 42 URTE!!!!!! ESKERRIK ASKO!!!!!!

Bihotz-bihotzez erretiro ezin hobea desio dizugu!
Zorionak eta besarkada bat guztion partez!!!!

*Mari Karmen horrenbeste urtez
eskolan sukaldaria,
jubilatzea izan dadila
lan ederraren saria,
nahiz beti ez genizun ematen
dena jatea oparia
zu faltan bota behar zaitugu
dugu hutsune handia.*

*Zenbat makarroi eta lenteja
borraja, arroz eta arrain,
batzuk gustora jaten genitun
besteak ez genitun nahi,
gustora egin behar dugunez
dena garaian garai,
besteak sukaldatu dezaten
eta zuk jan zazu lasai.*

Ibarberri Eskola

eskolatik
mailopera



**ASEGURU
AHOLKULARIAK**

*Zure ondarea eta segurtasuna
babesteko modu bakarra
behar bezela aseguratua
egotea da*

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



NEKAZARI, S.L.

Kubota
STIHL

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com

ANTONIO CARRARO

BIDEGOXO JATETXEA

*Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak*

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com



JARDUNALDI MIKOLOGIKOA BERTAN BEHERA

Joan den urriaren 21ean Ttutturre Kirol Elkar-
teak Lekunberriko Udalarekin batera antola-
tutako jardunaldi mikologikoa bertan behera
gelditu zen. Udazken bereziki lehorra izan dugu
eta ondorioz onddoak eta zizak apenas aurki
ditzakegu gure mendi txokoetan.



UITZIKO PLAZAOLAKO TUNEL LUZEA IREKI DUTE

Plazaolako Maratoiaren probarako zenbait ego-
kitzapen lan egin ondoren, Uitziko tunel luzea
irekitzea lortu bazuten ere, lanak guztiz bukatzeko
berriro ere itxi egin zuten. Baina dagoeneko lanak
guztiz bukatu dituzte eta Plazaola Bide Berdea
osorik egiteko aukera dago jada.



ETXEPARE

Joan den hilean aurkeztu zuen Pamiela argitale-
txeak *Cosimoren Katiuskak* liburua. Ana Ibañez eta
Dani Martirenak egindako lana, ekainean egin
zen Etxepare sariketako irabazlea izan zen eta da-
goeneko kalean da. Mitxausenea kultur-etxean
dago liburua eskuragarri.

bertso berriak Mailoperi jarriak: Joxe Mugiro (Aldatz)

Maratoiak plazaola bidea, irailean hauspotzen.

Lekunberriko Andoainera,
zangoak azkar astintzen.
Garai bateko burnizko gurpil,
zaharren bidea berritzen.
Batzuk lasterka bestek begira,
denak giroaz gozaten.

Bide Berdeak gogoratzen do,
garai bateko **kultura**.

Herri batzuen artean zegon,
harremaneko **lotura**.

Urtero bada maratoia,
bihurtzen zaigu **ohitura**.

Zorre ere etorri zaitez,
daukazu zure **eskura**.

Doinua: Badira hiru aste.

Juan Mari Larretarentzako oina:

Hamaika egun denak euskaraz,
badator Euskaraldia.

Puntuak:

Umela, Goibela,
Txartela, Pardela

“Gure baserrien etorkizunean sinistu behar dugu”

Araizko Zaporeko kideak dira Igone Vazquez, Mainer Agirrebarrena, Jexux Estanga eta Irati Ezeiza. Joan den urriaren azken asteburuan Araizko Zaporeak Azokaren bigarren edizioa izan zen Atallun. Badira bi urte inguru batzordea sortu zela eta dagoeneko hasi da Araizko zaporeak bere emaitzak ematen.

Araizko Zaporearen bigarren azoka antolatu duzue aurten. Zer moduz joan da?

Maidar: Ongi, baina pena da baserriar gehiago ez animatu izana. Gainera aurten uzta txarra izan da, sagar gutxi egon da, intxaurrek ere gutxi eta barazketan tomaterik apenas... Aurten ekoizle eta artisauetz gain, Amaralar taldeko lagunak izan genituen gurean. Baratza komunitarioaren euren proiektua aurkeztu zuten eta bide batez euren barazkiak saltzeko aukera izan zuten.

Elikadura burujabetzari buruzko Parlamentu Irekian ere izan zineten....

Maidar: Interesgarria izan zen eta ikusi zen Nafarroa guztian, nahiz eta Erribera eta gure ibarra oso ezberdinak izan, azken finean denoi antzeko faktoreek eragiten ditugula eta antzeko aldaketak eskatzen ditugula.

Nik bailara honetan argi ikusten dut elikadura burujabetzak garrantzia handia duela, lurra ora-

indik emankorrek direlako eta nahi izanez gero baserri horiek etorkizuna izan dezaketelako. Gure baserrien etorkizunean sinistu behar dugu eta horretarako kontzientziazio lan handia egin behar da. Jatekoa egunero erosi beharra daukagu eta gure esku dago zer erosi.

Eta hemengo ekoizleekin elkartu al zarete?

Maidar: Hemengo ekoizleei azokarako gonbidapena luzatu genien, baina gehienek ez daukate plaza ateratzeko ohiturarik. Egiten ari garen lana gustatzen zaie eta animatzen gaituzte baina gero ez dute postua jartzeko pausorik ematen. Pena da. Bestalde, baserriar asko esne ekoizleak dira eta etxea zuzenean saltzea aspaldiko kontua da, baina seguru gaude baserri horietan esneaz gainera, baratza egingo dutela, intxaurren, sagarondoak, ezitia egingo dutela... eta horrek ere balioa dauka. Plazara ateratzearen helburua ez da soilik salmenta, bailara honetan dugu ondarea erakustea ere bada. Bertako jakiak izatea, bertan modu osasungarriak ekoizitakoak, hori pribilegio bat da.

Igone: Eta pentsatzen duguna bano gauza gehiago egiten ditugu etxean, baina ez gara kontziente eta uste dut arazo handiena hori dela.

Bailarako baserrien diagnostiko bat egitea ere baduzue aurreikusita...

Maidar: Bai. Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasle batek hartuko du horren ardura. Nafarroa osoko poltsa bat sortu nahi dute zer ekoizten den ikusteko. Iruñean esaterako, haur eskoletan bertako produktuekin egindako otorduak ematen hasi dira eta hori Nafarroa osora zabaldu nahi da, baina horretarako tokian toki zer ekoizten den ezagutu behar da, zer eskaini dezakegun jakiteko. Bestetik,



Araizko Zaporeakeko kideak dira, Igone Vazquez, Irati Ezeiza, Mainer Agirrebarrena eta Jexux Estanga.
Arg.: Labrit.

beste ikasle batek, lur poltsa sortu eta elikatuko du. Lasten lur asko hutsik geldituko direla ikusten dugu, landu gabe. Lur horiek zeintzuk diren zerrendatu eta poltsa bat sortzea interesgarria iruditzen zaigu.

Irati: Lehenik baserri hutsak eta biziak identifikatu, bizitza duten baserrietako bizilagunen adina eta euren lurak lantzeko asmoa duten ezagutu eta hortik aurrera aztertu beharko da, lur horiek nola eskaini daitezkeen landu gabe gelditu ez daitezkeen. Lan horiekin aurtun hasia espero dugu.

Araizko zapoak sor-marka sortu zenuten. Zer-nolako erantzuna izan du?

Maidar: Dagoeneko hasi gara gure produktuei pegatinatxoak jartzen. Gehien bat kanpora saltzen dugunean jartzen diogu, bailara ezagutarazteko asmotan.

Zer egin behar du bertako ekoizle batek logoa erabili ahal izateko?

Maidar: Konpromiso orri bat bete baino ez du egin behar. Araizko udalletxean daude eskuragarri. Oinarrizko baldintza batzuk bete behar dira, bailaran ekoiztua izatea, lurarekin errespetuan lan egitea, logoa onura pertsonalerako ez erabiltzea etab. Guk logo berri honekin bailara ezagutzera eman nahi dugu eta produktu horiei hemen ekoiztua izatearen gehigarri hori eman.

Interesatuek udalletxean eskatu dezakete konpromiso orrialdea edo Araizko Zapoak taldeko e-postaren bitartez egin dezakete eskaera (araizkozaporea@gmail.com).

Iaz, Intzako belar kableetako bat berreskuratu zenuten eta dagoeneko bigarrenarekin zabiltzate Gaintzan...

Igone: Bai, 2017ko ekainean egin



genuen Intzako kablearen erakustaldia eta orain Gaintzan gabiltza auzolanean bertako kablea martxan jarri nahian.

Maidar: Hasierako gure asmoa kilometro eta erdiko kablea berreskuratzea zen eta horretarako diru-laguntza bat eskatu genuen, baina inguruan bizi diren hegaztien eremu naturala errespetatu eta azkenean motzagoa egitea erabaki genuen, 400 metro ingurukoa.

Jexus: PDR programako diru-laguntza hori ez ziguten eman eta auzolanen bitartez egiten ai gara pixkanaka. Udaberrian hasi ginen eta dagoeneko zortzi auzolan egin ditugu.

Eta zeintzuk dira bertan egiten ari zareten lanak?

Jexus: Lehendabizi ingurua garbitu eta gero goialdean dorre bat eraiki behar da eta behean bi zutoin sartu behar dira eta punta bakoitzean katea lotzeko tentsoreak. Zutoinak eta dorrea dagoeneko prest ditugu eta badoa pixkanaka itxura hartzen, baina oraindik lana dugu egiteke.

Lanak amaitutakoan beste erakustaldi bat egiteko asmorik baduzue?

Maidar: Bai, bai noski, baina oraingoz ez gara data jartzera ausartzen.



Aurtengoa bertako ekoizleen produktuekin osatutako bigarren azoka izan da eta benetan arrakastatsua.
Arg.: Labrit.

“Araizko Zaporeaken logoa erabiltzeko konpromiso orriak eskuragarri daude jada”

Ekimen hauen gastuak ordaintzeko kamiseta batzuk atera ditugu saltzeko eta hurrengo urtean, udaberri aldera, eguraldi onarekin batera eginen dugu festa eguna.

Jexux: Gure asmoa lehenik lan guztiak amaitu eta probaren bat egitea da, festaren egunean sorpresarik egon ez dadin.

Maider: Kableak 400 metro inguru izango ditu eta festaren egunean, auzolanean igoko da kablea goraino, lehen egiten zen moduan. Gero kablea jarri eta belarra nola jaisten zen ikusteko erakustaldi bat egingo dugu.

Intzan egindakoarekin pozik gelditu al ziren herritarrak?

Maider: Bai jendeak oso oroitzen onak ditu.

Jexux: Nik uste joan zena gustora gelditu zela eta joan ez zena penaz gelditu zela.

Maider: Bertan bizi ziren arbasoei egiten diegun omenaldi bat da. Ondoko belarrarekin nahikorik ez eta han gora igo beharra belarra

egitera... Oso gogorra behar zuen. Intzan egin genuen kablearen festan Idoia Zabaletak egindako argazkiekin hamasei argazkiz osatutako erakusketa bat inauguratu genuen uda hasieran Atalluko Etxeberrian. Oraindik ikusgai dago.

Eta ikasturte honi begira, zein helburu dituzue?

Maider: Uztailean gogoeta saio bat egin genuen. Hogei lagun inguru elkartu ginen eta oso lan dinamika interesgarria egin genuen.

Irati: Ondarea, ekonomia eta biztanleria hartu ziren gaitzat eta arlo horien inguruan, talde ezberdinetan lanketa bat egin zen. Egun hartan bertan dagoeneko proiektu baten proposamena atera zen, garraioa partekatze egitasmo edo sare bat martxan jartzeko aukera.

Igone: Eta bertako ikastetxe eta egoitzetan bertako produktuak erosi eta kontsumitzeko beste udalerrietan sortu diren egitasmoak ezagutzera eman nahi genituzke, hemen ere tokiko kontsumoa sustatzeko.



Proiektuak, besteak beste, ondarea, ekonomia eta biztanleria hartzen ditu ardatz bailarako etorkizuna eraikitzeko.

Arg.: Labrit.

Antzonia
BASERRIKO GAZTA

948 513 468
www.antsonea.com
Uztegi (Araitz)

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPONTZEN

634 551 743
infoaralar@gmail.com

AUTOZERBITZUA - ARRAINDEGIA
- HARATEGIA -

PATXI GALARZA
Astelehenetik larunbatera
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00
Igande eta jaiegunetan
8:00 - 14:00
Irurtzun

Allprox

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34



EUSKARALDIA

11 EGUN EUSKARAZ

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra



IZEN-EMATEA

www.euskaraldia.eus

Kaleko jokoak



●● Mikel Hernandez

“Bote – bote!”, “Hemen perrito guardian bakarra besterik ezin da geratu!”, “Egina!”, “Atera denak, partida honek ez du balio!”... Kaleko jokoetako esaldi hauetako batzuk akaso ezagunak egingo zaizkizu Pello. Polis y cacos, ezkutaketak... Zenbat ordu eman izan ditugun jolas hauetara jolasten. Ez zegoen, esate baterako, afaldu eta plazara joatean, polis eta cacos jokoko zozketan parte hartu eta lapurra (caco) tokatzea bezalakorik. Polizia (poli) kontaktzen hasi eta ziztu bizian handik irten beharra zenuen, harrapatua izan ez zintezan. Eta harrapatzen zintuztenean, taldeko batek libratzean zenuen sentrazioa ere ikaragarria zen.

Ezkutaketetan edo polis y cacos jolasean dagoeneko ezkutaleku bat zehaztu eta hara joaten zinen, inoiz harrapatuko ez zintuztenaren sentrazioarekin. Batzuetan, egia esan, leku arrisksuetan murgiltzen ginen, baina behintzat gozatu egiten genuen, hanketan nahiz gorputzean zarrastak edo kolpeak hartzen bagenituen ere.

Ezkutaketetan ere sekulako korrikaldiak botatzen genituen, bai eta Lekunberriko plazan futboleant nahiz pareta baten kontra pilotan ere. Tamalez, urte batzuen ondoren, kaleko jolas hauek galdu egin dira makina elektronikoen mesedetan. Gu jolas hauetan aritzen ginenean eztabaidak jolasetan ematen ziren tranpengatik izaten ziren. Orain, ordea, jolas hauek galtzearen ondorioz, gaztetxoak (denok bezala) WhatsApppeko hizketaldi batean emandako gaizki ulertu baten ondorioz izaten dituzte eztabaidak. Pixka bat tristea, ezta?

Azken hausnarketa gisa, kaleko joko hauetan, talde batean edo bestean izan, denok talde bateko kide izatearen sentrazioa genuen, nolabait talde identitate hori genuelako. Orain, gaztetxoek, geroz eta lehenago dituzte mugikorak, gailu elektronikoak... Eta nire ustez, adin tarte guztietan gertatzen ari den bezala, gaztetxoentean ere individualismoa nagusitzen ari da. Zein da zure iritzia honen inguruan Pello?




●● Pello Azpirotz

lepa Mikel! Ba bai zuk diozun bezala hurrek jokoarekiko duten ikuspuntua asko aldatu da urte gutxitan eta guk aldaketa hori bizi izan dugu. Gurasoei galdetuz gero, azkar esango dizute beraiek orduak pasatzen zituztela kalean jolasean: Tabak erabiliz, kuriketetan (ezkutaketetan), frontoian pilotarekin, zibarekin jolasten, bote-botean, harrapaketetan... Gaur egun dauzkagun baliabide teknologikoak ez zituzten, baina hala ere, ederki pasatzen zuten. Joko horietako askotan, taldean jolastu behar zen, baina beste batzuetan bakarrik ere jolastu zitekeen.

Gaur egun jolasteko erabiltzen dituzten gailuek beste era bateko jolasa eskaintzen dizkiete haurrei. Gu haurrak izan ginenetik orain arte, aldaketak egon dira jokoari dagokionez, baina txikiak dira gure gurasoek edo belaunaldi helduagoek bizi izan dutenarekin alderatuta.

Nire esperientziari dagokionez, esango nuke biak ezagutu eta bizitu ditudala. Frontoian ordu askoz aritutakoa naiz (arratsalde osoak beste etxeetakoekin “pikean”), baina Game Boy-ean ere makina bat ordu pasatzen horietako bat ere banauzue. Lekunberri bizi nintzenez, plazan eta inguruetan pasatzen genituen ordu pilak ere gogora datozkit. Nola gozatzen genuen uda garaiko iluntzeetan (egunak luzeak zirenean) “polis eta cacos”-era jolastuz herri osoan zehar edo elurra egiten zuenean trineoa hartu eta egun gehiena elurretan pasatuz... Egia esango dizut, gustura jolastuko nuke “polis eta cacos”-era hauetako batean, duela urte batzuetako oroitzapen eder horiek berriro bizitzeko.

Garai bateko joko interesgarri eta dibertigarri asko galdu egin dira eta neurri bateraino tristura ere eragiten dit horrek. Oro har, esango nuke, haurren jokoak gizartearen ematen diren aldaketen isla direla eta inertzia horiek aldatzea oso zaila dela. Geroz eta gizarte sedentarioago batean bizi gara, eta pantaila digitalek kasu honetan pisu handia dute. Orduak pasatzen ditugu pantaila begira. Hurrengo arte!!!





Laida Vicente Alkorta
Urriaren 31n, 11 urte.
Luar Vicente Alkorta
Urriaren 25ean, 8 urte.
Zorionak bioi etxekoan partetik!!! Segi beti bezain jator!! Muxu haundi bana!!



Urko Tolosa Iraola
Azaroaren 10ean, 6 urte.
ZORIONAK MAITIA!!!! Oso ongi pasa zure egunean. Muxu erraldoi bat June, aitaxo eta amatxoren partez.



Leire Etxarri
Azaroak 17.
Zorionak Leire!! Urtebetetze egunean gozatu alaitasunez ospatu, gure maitasunaz kutsatu eta bihotza beteta bueltatu.
Proiektu berriei indarrez eutsi ametsak betetzen direla sinetsi, beldurrei atea itxi eta munduari zure balioa erakutsi.
Asko maite zaitugu. Zure ahizpa eta lagunak.



Laida Garmendia Huarte
Azaroaren 8an, 8 urte.
Handitzen handitzen! Ongi pasa eta hobe ospatu familiaren partez! Muxuk.

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.

M. Angeles Urrizalki

iragarkiak, berriak, eskelak...

Diario Vasco eta Diario de Navarrako Korrespontsala

**948513056
699179437**

Atabal
okindegia

Era askotako ogiak eta gozoak

Etxez etxe banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151

MAITE
harategia

BERTAKO HARAGIA
Txistorra, txorizoa, salteixak, sukaldaturako platerak. Etxera eramateko zerbitzua ere eskeintzen dizugu.
Antigua Kalea Nº7
31890 BETELU
Telf: 948 51 30 88
maiteharategia@hotmail.com

KATIXA GOLDARAZENA ETA JON MIKEO SARITUAK IZAN DIRA ARTE GAZTEAREN 2018KO TOPAKETETAN

Nafarroako Gobernuak antolatutako Arte Gaztearen 2018 Topaketetako sari banaketa izan zen joan den urriaren 17an Iruñeko Zentral aretoan. Tartean eskualdeko bi herritar izan ziren sarituak. Jon Mikeok aurkeztutako Untiled arropa bildumarengatik Moda Diseinuaren lehen saria jaso zuen. Eta Katixa Goldarazena arruiztarrari berriz, Arte plastikoen hirugarren saria eman zioten *Pintura ikerketa plastikoa, paisaiari jarraiki* ikus-entzunezko lanagatik. Bertan argazki digitalek paperezko argazkien gainean duten harremana aztertu zuen besteak beste (Ikus-entzunezkoa dagoeneko YouTube plataforman dago ikusgai). Zorionak bioi!



NEGUKO IKASTAROETAN IZEN-EMATEKO AZKEN EGUNAK

Aurtengo neguan ere zure denbora libreari probetxua ateratzeko helduentzako ikastaro ezin-hobeak eskainiko dira Mitxausenea Kultur-etxean. Hona hemen aurtengo eskaintza:

- Egurra lantzen ikasteko tailerra eskainiko da larunbat goizetan (09:00-11:00).

- Facebook sare soziala erabiltzen ikasteko 20 orduko ikastaroa.

- Zer egiten dute zure- seme alabek mugikorrekin? Sare sozialak, ziber-segurtasuna, ziber-jazarpena... (20 orduko ikastaroa).

- Sare sozialek negoziotetan izan dezaketen erabilpena (20 orduko ikastaroa).

Talde txikietan eskainiko dira ikastaro hauek, baina gutxienez hamabi pertsonako taldea osatu beharko da. Bestalde, hilabetean behin Irakurketa Klubean parte hartzeko aukera egonen da. Gutxienez hamar lagunek eman beharko dute izena hila-beteroko topaketa antolatzeko.

Eman izena lehenbailehen Mitxausenea kultur-etxean (948 604 582).

MENDIALDEA MANKOMUNITATEAK 10 TONA ARTILE KUDEATU DITU

Arano, Areso, Goizueta, Leitza, Lekunberri eta Larraunen artilearen bilketa egiteko proiektuari ekin zion uda aurretik Mendialde Mankomunitateak. Eta guztira, 10 tona artile bildu eta era jasangarrian kudeatu du. Hamabi artzainek parte hartu dute proiektuan, horietatik lau larraundarrak dira eta Lekunberriko bat.

Gaur egun, artilea legez lehengai izatetik hondakin izatera pasa da. Mendialdea Mankomunitatea hiri hondakinak soilik kudeatzeaz arduratzen den arren, inguruko artzainek artilearekin duten arazoaz kontziente izanik, proiektu hau sustatzeko erabakia hartu zuen. Artzain bakoitzak sortutako artile kopuruaren arabera ordaindu behar izan du. Beraz, gastu bat suposatu die artzainei, baina behin-behineko egitasmo honekin behintzat pilatuta zuten artile horri irtenbidea emateko aukera izan dute. Mankomunitateak bildutako artile hori Ecofer enpresara eraman du, Erriberara, han ongarri bihur dezaten. Mendialdea Mankomunitateak parte hartu duten artzain guztiak zoriondu eta eskertu nahi ditu.



LARRAUNGO DANTZEN EMANALDIA ESKAINI DUTE JUAN MARI BELTRANEK ETA TIRIKITRAUKI DANTZA TALDEAK

Juan Mari Beltran musikologoak eta Tirikitrauki dantza taldeak emanaldia eskaini zuten joan den hilaren 19an, Lekunberriko plazan. Aski ezagunak ditu Beltranek Larraungo doinu eta dantzak eta bertako dantzen ikaskizun ederra eskaini zieten bertaratu zirenei.



Arg.: J.A. Garaikoetxea.



Arg.: J.A. Garaikoetxea.



Arg.: J.A. Garaikoetxea.

LARRAUN BIZI HERRI DINAMIKA ABIAN DA JADA IKASTURTE BERRIARI BEGIRA

Beste behin LARRAUN BIZI indarberriturik eta ilusioz gainezka dago denon artean Larraun biziberritzeko helburuarekin batera aurrera egiteko. Azaroaren 16rako, besteak beste, Topa Larraun 3.0 elkarretaratzea antolatuta daukagu. Bertan parte hartzera deituta daude Larraun bailarako eragile zein norbanako guztiak. Aldi berean, Larraun eta etxebizitzaren inguruko aferan sakontzeko ekimen herritar eta parte-hartzailea osatuko da, hausnarketa eta talde eztabaidatik etorkizuneko proiektu bideragarri izan daitezkeen proposamen eta aukerak jasoz.

Atzeko argazkia: Jay Lee - Unsplash

EKINTZAILEENTZAKO IKASTAROAK ESKAINIKO DITU CEDERNAK AZAROAN

Cederna Garalur Elkarteak bi ikastaro eskainiko ditu hilabete honetan. Azaroaren 5ean, fiskalitateari buruzko tailer praktikoa eskainiko du goizeko 10:00etatik 14:00etara. Eta azaroaren 12an, zerga betebeharrak betetzeko fakturak nola diseinatu ikasteko tailerra izanen da 10:00etatik 12:30etara. Bi ikastaroak Lekunberriko Plazaola geltokian izanen dira eta eskualdeko ekintzaileei zuzenduta egonen dira. Parte hartzeko beharrezkoa izanen da aurrez izen-ematea 617 609 328 telefono zenbakian edota mendialdea@cederna.es e-postaren bitartez.

Gainera, gogoratu Cederna Garalur Elkarteak garapen agenteak urte osoan zehar bertako ekintzaileei laguntzeko daudela. Negozio ideia berri bat izanez gero edo inork bere kontura negozio bat jarri nahiko balu Cedernak laguntza eta aholkularitza zerbitzua eskaintzen du. !



Arg.: Vega Botello.

AZAROAREN 23TIK AURRERA, ZUK ERE EUSKARAZ EGIN DEZAKEZU!

Hilabete hauetan matraka ematen ibili eta gero, hemen dugu azkenean Euskaraldia! Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitarte Euskal Herri osoan eginen den ekimen honetan parte hartzeko bi baldintza baino ez dira bete behar: hamasei urte-tik gorakoa izatea eta euskaraz ulertzea (euskaraz hitz egiteko gai ez izan arren). Joan den hilean Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea osatzen duten eskualdeetako ordezkariak ekimenaren aldeko agerraldi publikoa egin zuten Euskaraldiarekin bat egiten dutela adierazteko. Herritarren hizkuntza ohiturak aldatzea da ekimen honen helburua eta horretarako ezinbestekoa izanen da parte-hartzeko borondatea. Gure herrietako jaietan eta ospakizunetan izen-emateko aukera izan dute herritarrek eta egun gutxi falta badira ere, oraindik garaiz zabilta! Bete ezazu izen-emate orria www.euskaraldia.eus atarian edota eskualdeko toki hauetan: Mitxausenean, Lanbroa paper-dendan, Euskara Zerbitzuan, Araizko udaletxean edo Bete-luko udaletxean.

Langile klasea pozoitzen ari dira

Supermerkatuetako apalak produktu ugariz beteta daude, lehen janari bezala ezagutzen zen zerbaitez. Elikagai gehienak, batere osasuntsuak ez diren nahasketak besterik ez dira, hala nola, azukrea, kalitate baxuko olioak (palma, koltza), kontserbagarriak, almidoia, ura eta zapore indartzailez osatuta dauden produktuak.

Horrez gain, esan beharra dago langile klaseak askotan kontsumitzen dituen jatetxe merke horiek esaterako: pizzeriek, janari azkarreko lekuek, txinatar jatetxeek edo antzekoek... ez dutela egoera hobetzen laguntzen. Nola da posible euro bateko hanburgesa edo lasagna bat lortzea? Posible da lan ultra-prekario batekin ekoitzia izan delako alde batetik, eta bestetik, benetako janariz baino gehiago, zaborrez beteta dagoelako. Halaber, OME-ek (Osasunaren Mundu Erakundea) elikagai hauen kontsumoa jaistea gomendatzen du. Izan ere, ikerketa zientifiko asko daude haragi prozesatuaren kontsumoarekin (hirugiharra, saltxitxak, mortadela edo nuggetsak), minbizia edo bihotzeko gaixotasunak pairatzeko arrisku handiagoa dagoela baieztatzen dutenak.

Baina, zergatik da zabor-jana elikadura osasuntsua baino merkeagoa? Prozesu industrialen globalizazioarengatik, eta zehazki, kapitalismoarengatik. Gaur egungo gizarte honetan, langilea osasuntsu egotea ez da beharrezkoa, edozein gauzekin elikatzea nahikoa da, ekoizten jarraitzeko eta ahuldu ez dadin. Sistema toxiko bat da. Bizitzarekin



Arg: Unsplash.

eta ingurugiroarekin jokatzeko du, eta ez du arazorik biztanleriaren gehiengoa pozoitzeko gutxi batzuen irabaziengatik. Hitz gutxitan esanda, galtzen ateratzen garenak langile klasea gara, soldata baxuei lotuta gauden pertsonak eta benetako janaririk lortzeko aukerarik ez dugunak.

Dena dela, ekoizle batzuek bertako janariarengatik apustua eginez, ekoizpen ez industrial eta osasuntsua posible dela gogorarazi digute. Ostera, kapitalismoak etekin gehiago ateratzeko beste aukera bat ikusi du eta supermerkatuetako beste es-

kaintza mota bat bihurtu du, janaria ECO edo BIO deituz (soilik gutxi batzuen esku dauden jakiak).

Azkenik, ez dut egoera idealik proiektatu nahi, soilik proposamen bat aurkeztea dut helburu: ondo eta osasuntsu jatearen nahia berreskuratu behar dugu, produktu lokalekin, gehigarririk gabe eta ingurugiroa eta bertan bizi diren animali ez-gizakiak errespetatuz eta zainduz. Elikadura burujabetza, dieta beganoak edo begetarianoak, landa-ekologia, hiri-baratzak edota baserrietara bueltatzea; kontrakorrante pausu txikiak dira.

Umorea oso gauza serioa da!

Kaixo irakurle maiteak. Udara pasa berri da eta jadanik ikasturtean sartuta idazten dut hau, udazkenaren zapore berezi hauekin, errutinaren nahiarekin eta nagiarekin... Umorez hartu beharko dugu kontua! Gaurko gaia horixe delako, umorea. Xalotelebistak "Sudur gorri" deitzen den saio bat egiteko, mintzakide moduan deitu ninduten. 32 saio egin behar ziren. Denak egin ezin izan ditudan arren, gehienak egin ditut. Gonbidatu bat ekartzen genuen hasieran elkarrizketatzeko eta gero munduko eta inguruko berriak hartzen genituen haiei buruz mintzatzeko. Saioaren eskakizuna "umorez" egitea zen.

Aukera ederra izan da umorearen inguruan hausnartzeko eta hori praktikan jartzeko! Eraikitako eta ikasitako kontua baita umorea, iritziak ematen dituen, ona eta txarra erabiltzen dituen, gauza asko esaten dituen. Aspalditik heldu zitzaidan umorearen inguruko kezka hau.

Bertsolaritza garaitik hasi nintzen honetaz kezkatzen. Bertso afari "klasikoetako" umorea, bati burusoil deitza zen, besteak ez zuela ligatzen... besteen kontura barre egitea zen ohikoa, norbaitek "aguantatu" behar zuen astakeri jasa, ahal bazuen min egiten ziola erakutsi gabe, ahalik eta azkarren beste bati txanda noiz tokatuko zitzaion itxaroten... Bertsozale Elkartean umorearen inguruko jardunaldiak egin ziren eta han asko ikasi nuen. Virginia Imaz klown sorginak erakutsitakoak ditut gogoan, umoreak norberagandik pasa behar duela (ez da berdina kanpoko ile



Arg: Unsplash.

gabeari kantatzea edo nire buruari kantatzea horren inguruan...) eta umorea egiteko, gaiaren zauria sendaturik egon behar zuela. Ezin dugu barre egin min ematen duen zerbaiten inguruan... Saioetan hau praktikatu joan nintzen eta eragina nabarmena izan zen, aurreko barre algara zitalak ez ziren agertzen, baina bai irribarre maitagarri, mantendu eta eskertu asko.

Umorearen aitzakian egurra ematen delako. Kontrol tresna oso eraginkorra da umorea. Barre egiten diegu lodiei, homosexualei, emakumei... eta bromen aitzakian, gure balio sistema eraikitzen goaz, inork ez du izan nahiko lodi, homosexual... Aldiz, gure buruari barre egiteko gai garenean, gure kontraesanak ikusi, arindu egiten gara, garrantzia

kendu, ohartu... baina egurrik eman gabe. Gizaki ahul eta inperfektu sentitu gaitezke eta ingurukoak ere horrela ikusi eta onartu. Sendatzailea ere bada umorea!

Erabiltzen dugun umore gehiena ikasia delako. Barre egiten dugu "tokatzen" den horretaz, ikasi dugunaz. Irribarre jartzen dugu, agian graziaz ez digula egiten sentitzen dugun arren. Beste batzuetan, tripatik ateratzen zaigu barre algara, oharkabea, ezustean... mesede egiten digu, zer edo zer askatzen digu barruan. Ez delako erreza esatea "ba niri ez dit graziaz egiten". Gure umore benetakoa bilatzearen garrantzia azpimarratu nahiko nuke, gaur nigan bizirik dagoena, agian hemendik denbora batera aldatuko dena...

Sudur gorri umorea egiteko modu ezberdinak landu ditugu, ironia (pentsatzen dugunaren kontrakoa esatea), satira (norbaiten ohi-turei barre egitea...), esajerazio edo hiperbolea... "Notizien" inguruan mintzatu gara kode horiek erabiliz, gure ikuspuntuari garrantzia emanetz. Berri guztiek bazutelako nondik heldu franko ohikotik harago. Ikasi dugun garrantzitsuena hontan sakontzea izan da, umorearen atzean balio batzuk daudela eta horietaz jabetu behar dugula. Txiste bat egiten edo entzuten dugun hurrengoan honako galdera hauei zintzotasunez erantzutea eskatzen dizuet: Zertaz ari naiz barrez? Benetan grazia egiten al dit? Izenburuak dion bezala, umorea oso gauza serioa delako, benetan egin barre!



Zabal

Oskar Estanga

MAILLOPE EUSKARALDIAREKIN BAT!

Gurean, bederatzi urtetan, inmatrikulatutako 38 eraikin eta lursail

1.087tik gora dira Nafarroaren Ondarearen Defentsarako Plataformaren arabera, Eliza Katolikoak Nafarroan inmatrikulatutako ondasunak. Horiek, 1998tik 2007ra bitarte inmatrikulatutako datuak dira, oraindik argitzeke daude 1978tik 2015era bitarte egindako gainerako inmatrikulazioak.



Nork ez du gogoan orain ez urte asko Mugiroko Apezetxean urte luzez bitarteko familia kaleratu zutenekoa? Gurean ere, Elizak ermita eta eliza guztiak bere izenean inmatrikulatutako ditu. Ikertzeke dago horiez gain, gure hilerri, apezetxe eta horien inguruko lurak ere inmatrikulatutako ote dauden.

Larraungo Udalak 2017an onartutako mozio baten bitartez, Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataformarekiko atxikimendua adierazi zuen eta Hipotekaren Legeko 206. artikulua indarrean egon zen urteetan zehar, Eliza Katolikoak inmatrikulatutako ondasunen ohar arruntak Jabetza Erregistroaren bitartez lortzeko eta bildutako informazioa Kontzejuei helarazteko konpromisoa hartu zuen besteak beste. Lekunberriko EH Bilduk horri buruzko mozioa aurkeztu zuen Lekunberriko Udalean, baina Udalbatzak ez zuen onartu.

Bestetik, 2018ko irailean, Nafarroako Parlamentuak ere mozioa onartu zuen Foru Gobernuari 1978 eta 2015. urte artean Eliza Katolikoak inmatrikulatutako ondasunei buruzko informazioa eskura zezala eskatuz.

2007. urtean egin zuen eztanda Eliza Katolikoaren inmatrikulazioaren eskandaluak. Urte horren hasieran, kasualitatez, Altaffaylla Fundazioa Tafallako Santa Maria parrokia, Eliza Katolikoarengatik inmatrikulatutako zegoela ohartu zen. Joxe Mari Esparza, idazle nafarra izan zen hain justu aurkikuntza egin zuena eta inguruko



Gurean gurtza eraikinak ez ezik lursailak ere badaude inmatrikulaturik. Arg.:Labrit.

gurtzako eraikinak egoera berean zeudela egiaztatu ondoren, gaia mugiarazten hasi zen. Handik gutxira Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma sortu zen. Andrés Valentín Lizarrako semea dugu, eta beranduxeago bihurtu zen plataformako kide, 2014. urtean. Geroztik borroka horretan murgildurik dabil.

Nafarroako plataforma aitzindaria izan da estatu espainiarrean, eta bere atzetik joan dira sortzen probintziaz probintzia plataformak. 2016an Eliza Katolikoak inmatrikulatutako ondarea berreskuratzeko borrokan dabiltzan talde guzti horiek elkartu eta koordinakunde bat sortu zuten. Bertan izaera askotariko taldeak aurki ditzakegu, talde laikoak, talde kristauak, nekarazien elkargoa... Andrés: *“Apaizak ere baditugu gure artean, Pedro Leoz, Jesús Lezaun, Evaristo Villar... Eta geroz eta jende gehiago ohartzen da ez goazela Elizaren kontra, edo fededunen kontra. Gaizki egindakoak zuzentzea baino ez dugu nahi. Pixkanaka jendea konturatzen ari da orain dela bi urte herri-tar guztiok jarritako diruarekin apezetxeko teilatua berritu eta gero, Elizak saldu egin duela eraikina. Zamorako Laguna de Negrillos izeneko herri bateko bizilagunak adibidez, asaldatuta daude, herrian duten gaztelu bateko saloietako bat utzi baitzioten orain urte batzuk Elizari, bertan meza ospatu zezan, herriko eliza erori egin zelako. Eta orain, Elizak gaztelua oso-osorik bere izenean inmatrikulatu duela ohartu dira”.*

Nafarroako plataformak, 2008an, taldea sortu eta urtebetera, oso modu errazean lortu zituen Nafarroan 1998ko 2007ra bitarte inmatrikulatutako ondasunen zerrenda eta oharra. Ez da horren erraza izaten ari ordea gainerako urteetako datuak eskuratzea.

Gure eskualdean, 38 dira Eliza Katolikoak 1998tik 2007ra inmatrikulaturiko ondasunak. Ez dugu ordea, 1946tik 1998ra bitarte inmatrikulatutako apezetxe, eraikin eta bestelako ondasunen informaziorik, ezta, 2007tik 2015era inmatrikulatutakoen ere.

Araitz

Arribe: San Miguel Parrokia
 Arribe: Herrian lursaila
 Atallu: San Juan Bautista Parrokia
 Azkarate: San Esteban Parrokia
 Gaintza: San Martin Parrokia
 Gaintza: Larre lursaila
 Intza: Santiago Parrokia
 Intza: Larre lursaila - Soroberaino
 Intza: Larre lursaila - Sororaino
 Uztegi: La Asunción Parrokia
 Uztegi: Castañal lursaila

Betelu

Santa Cruz de Irigoyen Ermita
 San Donato Ermita
 San Pedro Parrokia

Larraun

Albiasu: San Gregorio Parrokia
 Aldatz: San Martin Parrokia
 Alli: Juan eta Pablo Santuen Parrokia
 Alli: Asiaran lursaila
 Arruitz: San Kristobal Parrokia
 Astitz: Gaztanieta lursaila
 Astitz: San Pedro Parrokia
 Azpirotz: San Esteban Parrokia
 Azpirotz: San Bartolome Ermita
 Azpirotz: Anibe lursaila
 Lezaeta: La Asunción Parrokia
 Baraibar: San Miguel Parrokia
 Errazkin: San Martin Parrokia
 Etxarri: San Miguel Parrokia
 Etxarri: Santa Krutz Ermita
 Gorriti: San Bartolome Parrokia
 Uitz: San Miguel Parrokia
 Iribas: San Juan Bautista Parrokia
 Lekunberri: Pilareko Ermita
 Lekunberri: San Juan Bautista Parrokia
 Madotz: San Juan Bautista Parrokia
 Madotz: San Anton oinetxea
 Mugiro: San Pedro Parrokia
 Oderitz: San Lorenzo Parrokia

Andrés Valentín

“Eliza Katolikoak hemen egindakoa Frankismoari esker izan da”

Andrés, Eliza Katolikoak 1946an onartutako Hipotekaren Legeak biltzen duen arau baten babesa baliatuz egin ditu inmatrikulazioak....

Eliza Katolikoak ondasunak bereganatzeko duen nahia historikoa dela esan dezakegu. Historian atzera egin ez gero, Eliza beti ibili izan da Erregeari dirua atera nahian, hamarrenak batetik, primiziak bestetik... 1931an, Errepublikan iristear zegoela, ezagutu dugu Gotzainak presioa egin zuela, argudiatuz gorriak etortzen zirenean ondasun guztiekin geldituko zirenen arriskua zegoela eta komenigarria zela ondasunak babestea. Adibidez,

Aralarko San Migel santutegia, ermita eta inguruko eraikinen titulartasuna aldatu egin zen Iruñeko Elizbarrutiaren izenean jarriz, baina ez horiek bakarrik, baita inguruko 88.596 metro karratu lur ere. 1946. urtean Hipotekaren Legea onartu aurretik, titulartasun aldaketa ugari egin ziren. Urte horretatik aurrera, jada inmatrikulazioez hitz egin dezakegu. Lege berri horrek ordura arte administrazio publikoena soilik zen eskumena ematen baitzion Elizari ere. Inmatrikulatzeko eskumena.

1998. urtean pauso bat gehiago ematen da Elizaren alde...

Bai. 1946an onartutako arautegian, salbuespen gisa debekatu egiten zen gurtzeko eraikinak inmatrikulatzea, eraikin publikotzat hartzen zirelako.

Beraz, ordura arte ez zen gurtzarako eraikinik inmatrikulatu?

1998. urtera arte bestelakoak inmatrikulatu ziren, apezetxeak, elizen aurrealdeko lorategiak, elizaren atzeko kaleak, hilerriak, elizaren kontra zeuden frontoiak, apezetxeko baratzak... Hala ere, tranparen bat edo beste ere aurkitu dugu, adibidez lursail baten titulartasuna aldatzea, lursail horretan eliza bat dagoela zehaztu gabe... Eta Zaragozan debekaturik egon arren, eliza bat inmatrikulatu zuten zuzenean. Horrek adierazten digu zer nolako konplizitatea zegoen Jabetza Erregistroko langileen eta Elizaren artean. Elizak egiten zituen arau-hauste horien jakitun, Jose Maria Aznarrek, 1998. urtean salbuespen hori bertan behera utzi zuen eta gurtzako eraikinak ere inmatrikulatzeko bidea ireki



1946an onartutako arautegian, salbuespen gisa debekatu egiten zen gurtzeko eraikinak inmatrikulatzea.

Arg.: Labrit.

zion Elizari. Urte horretatik 2015era bitarte inmatriculazioak sistemati-koak bilakatzen dira.

Eta 2015ean Mariano Raxoik Fran- kismoan Hipoteka Legearekin Eli- zari aitortutako eskubide hori ber- tan behera uzten du. Zergatik?

Ordurako, zenbait salaketa eskan- dalagarri egin zirelako eta 2004an Giza Eskubideen Europako Auzite- giak estatu espainiarra kondenatzen zuen sententzia kaleratu zuelako partikular baten jabetzakoa zen lur batean zegoen ermita baten kasuan, Palentziako Apezpikuak egindako in- matriculazio baten aurrean, partiku- larraren jabetza ez bermatzeagatik. Raxoiren gobernuak errekurritu egin zuen, baina 2016an kaleratutako behin-betiko sententziak kondena mantendu zuen eta 616.000 euro in- guruko zigorra jarri zion. Dirutza hori espainiar estatuko hiritar guztion zer- gekin ordaindu da zoritxarrez.

Hau guztia Europako bestelako he- rrialdeetan ere gertatu al da?

Ez. Are gehiago, Portugal ere diktadu- ra batetik zetorren eta bertan aldiz, Salazar diktadoreak Vatikanorekin adostu zuen gurtzarako eraikinak es- tatuaren jabetzakoa zirela, eta gurtza katolikoa bermatuko zuela. Guk ez dugu inoiz gurtza katolikoa zalantzan jarri. Zalantzan jarri duguna jabetza da. Dударik gabe, Notre Dame esta- tu frantsesaren jabetzakoa da, Colo- niako katedrala estatu alemaniarre- na den moduan edo Italiako gurtzako eraikinak Barne Ministerioarenak diren moduan. Eliza Katolikoak he- men egindakoa Frankismoari esker izan da.

Gainera, badirudi inmatriculatze- ko prozesua oso arrunta izan dela, ezta? Izapide gehiegirik gabe egin zitekeen gauza bat zen...

Bai, bai, kasu askotan, inmatriculatu- zen elizako apaizari ere ez zitzaion jakinarazten. Lasai aski joan zitekeen Artzapezpikutzako langilea Jabetza Erregistrora, Artzapezpikutzak be- rak sinatutako hamabost egiaztagi-



Andrés Valentín Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataformako kidea da.

riekin, hamabost ondasun horiek inmatriculatu nahi zituela esanez. Bakoitzeko hiruna euro ordaindu eta 45 euroren truke hamabost on- dasun bere izenean inmatriculatu- rik zeuzkan.

Zer esan nahi du zehazki inma- trikulatzeak?

Inmatriculatzea lehen aldiz erregis- tratzea da. Aurretik erregistraturik gabe zegoen ondasun bat erregis- tratzea. Kasu gehien-gehienetan ondasun publikoak ziren. Ez gara ari Elizak dohaintza bidez edo lagapen bidez jasotako ondasunez. Historiko- ki inorenak ez ziren ondasun horietaz ari gara, hau da denonak ziren onda- sunez. Herriarenak ziren, herritarre- nak, eta partikular baten esku gelditu dira, Eliza Katolikoaren esku. Are ge- hiago, Eliza Katolikoaren egitura hie- rarkikoa kontutan hartuz gero, estatu atzerritar batenak izatera pasa dira, estatu Vaticanoarenak.

Orain arte udal edo kontzejuren batek lortu al du bere ondasunak bereganatzea?

Bai. Bai, Garinoainek, Otxagabiak... Badira lorpen batzuk, baina oso ne- goziaketa konplexuak dira eta azken

“Gure ondasunak estatu atzerritar batenak izatera pasa dira, estatu Vaticanoarenak”



batean Elizak botere handia dauka. Lorpen esanguratsuak ditugun arren, ezerezean gelditzen dira, Sevillako Katedrala eta bere ingurua inmatrikulatu zutela jakiten duzunean eta inmatrikulatutako inguru horretan zer egongo eta Giralda... Orduan ohar-tzen zara, emandako aurrera-pausuak oso txikiak direla, inmatrikulatutako milaka eta milaka ondasunez ari baikara.

Gaur egun zein egoeratan gaude?

Baliteke bihar bertan inmatrikulatutako guztiaren zerrenda kaleratzea edota, Parlamentua desegin, hauteskunde berriak ospatu eta dena ezerezean gelditzea.

Eta zerrenda hori kaleratuko balitz?

Lehenik, lan handia izango genuke kasu bakoitza sakonki aztertzen. Gizartean ikaragarritzko samina sortuko luke egi osoa ezagutzeak. Eta hortik aurrera, noski, 1998a baino lehen inskribatutako guztiaren oharra eskatzen jarraitu beharko dugu eta hori oso luze joanen da. Baina zerrenda ezagutzen dugunean eztabaidatu behar dena da zein den hori guztia berriro ere jabetza publiko bihurtzeko bidea. Momentu honetan osagarriak izan daitezkeen lau edo bost estrate-

gia dauzkagu mahai gainean, baina guztiak dira konplexuak. Errazena eta garbiena, inmatrikulatutako ondasun horiek inmatrikulazioaren aurreko egunean zuten estatus bera izatera pasa dadila, hori Elizak onartzea. Eta ondoren, Elizak jabari nahikoa duela egiaztatu daitekeen eraikin horiek erregistratzea. Hori da errazena, baina ez dut uste prest egonen denik.

Zein beste aukera daude?

Gurtzako eraikinak soilik geureganatzen saiatzea eta gainerakoaz ahaztea. Edota loteka egitea, hau da, adibidez hilerriak herriarenak dira, non oinarritzko eta unibertuala den zerbitzu publiko bat ematen den eta ezin da jabetza pribatukoa izan. Beraz, hori guztia zuzenean jabetza publiko izatera pasatzea. Bestetik, Kultur Ondarearen Arautegia errespetatuz ezinezkoa da Burgoseko Katedrala edo Kordobako mezkita jabetza pribatukoak izatea, indarrean dagoen arautegia hausten duelako.

Eta beste estrategia bat izango litzateke, nolabait ondasun guzti horiek komunal bihurtzea. Hau da, ez dira, ez Udalarenak eta ezta Elizarenak ere, herriarenak dira, eta ondorioz, historikoki emandako erabilera emango zaie erabilera hori agortzen den bitartean. Adibidez, apezetxea hutsik gelditzen den momentuan komunal izatera pasako da eta Udalak herriko etxe bezala erabili lezake behar duenerako.

Zer gomendatzen diezue zuen plataformara jotzen duten udal edo herritarrei?

Guk euren kasua aztertu eta berenganatzen saia daitezten animatzen ditugu. Nik esaten dudan moduan, Elizaren denbora muga eternitatea da, hori du bere alde. Beraz, epaiketa prozesuak ahalik eta gehien luzatzen saiatzen da. Baina amorru handia ematen dio etsia hartzen ez dugula ikusteak, eta ez dugu amore emango, tabarra ematen jarraituko dugu!

Azaroaren 14an amaituko da Errigorako saskia eskatzeko epea



Joan den urriaren 25ean eman zitzaion hasiera Errigora ekimeneko 2018ko kanpainari. Aurtengoa bosgarren edizioa da eta bost urte hauetan Nafarroako hegoaldeko euskalgintzara 800.000 euro bideratzea lortu du Errigorak. Hala ere, oraindik saski asko saldu eta laguntza ematen jarraitzea espero dute ekimeneko kideek. Izan ere, Nafarroako hegoaldean asko dira euskaltegi eta ikastetxeek egunerokoan dituzten erronkak.

Bertako ikastolek eraikinetan konponketak egiteko nahiz materiala erosteko erabili dute jasotako laguntza. Sortzenek berriz, ekimenetik jasotako diruarekin hegoaldeko ikastetxeetan D ereduko taldeak sortzea lortu du. 2015. urtean Nafarroako Parlamentuan onartutako lege aldaketari esker, gaur egun Nafarroako eskola guztietan euskaraz ikasteko eskubidea dute herritarrek, baita "eremu ez-euskalduneko" eskoletan ere. Sortzenek sentsibilizazio kanpaina ikaragarria egin zuen bertako herritarren artean, eta dagoeneko bederatzi ikastetxeetan lortu dute D ereduko taldeak sortzea, Caparrosan, Lodosan, Tafallan, Erriberrin, Antzinen, Allon, Barasoainen, Azkoienen eta Sesman.

AEK euskaltegiek ere jasotzen dute Errigoraren laguntza eta Nafarroako hegoaldean dituzten mantenurako erabiltzeaz gainera, ikasleei bekak eskaintzeko bideratzen dute diru gehiena. Izan ere, bertako herritarrek ez dute diru-laguntzarik jasotzen Administrazioaren aldetik eta esfortzu ekonomiko handiagoa egin behar izaten dute.

Gainera, pixkanaka geroz eta handiagoa da bertako gizartean euskarak duen presentzia. Adibidez, 2016an Errigoraren parte hartzen duten ekoizleek euren webguneak euskaratzeko konpromisoa hartu zuten.

Azkeneko urteotan egin den moduan, edizio honetan ere bi saski izango dira aukeran. Saski bakoitza 50 euroren truke eskura daiteke eta horren %25 hegoaldeko euskalgintzara bideratuko da. Aurten 23 ekoizleren produktuekin osatu dira saskiak.

Azaroaren 14an amaituko da eskariak egiteko epea. Beraz, oraindik ez baduzu zure saskia eskatu, hurbil zaitzez Larraungo AEK euskaltegira edo egin zure eskaera www.errigora.eus atariaren bitartez.

ZOZKETA!!!!

Eta Mailopeko ale honekin batera, Errigorako bina saski zozketatuko ditugu gure aldizkarian. Horretarako erronka bat proposatzen dizuegu!

Zuk euskaraz norekin egiten duzun jakin nahi dugu. Atera argazkia zure mintzalagun gogokoena-rekin eta bidaliez mailope@labrit.net e-postara edo WhatsApp bidez (638 652 339).

Parte hartzen duzuenon artean bi saski zozketatuko ditugu. Animatu!



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



BACALAO ELKANO S.L.

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com

LEKUNBERRI



Bost egunez Pilarika Jaietan murgilduta Lekunberrin

Urriaren 10ean hasita bost eguneko jaiak ospatu zituzten joan den hilean lekunberriarrek. Hasiera berezia izan zen gainera. Udalak Gorka Urbizuri eskaini zion suziria botatzeko aukera, abeslari eta musikari gisa egindako ibilbidearen meritua aitortuz. "Gora Lekunberriko Jaiak" oihukatu aurretik ordea, Lekunberriko herriari eskainitako hitzak irakurri zituen eta udaletxeko balkoiaren azpian zeuden asko hunkitu ere egin zituen, bertakoentzako esanahi handikoak eta identifikagarriak diren lekuak, pertsonak eta momentuak gogora ekarriz. Mikeleteri umetan lapurtutako sagarren oroitzapenak esaterako, ostiralean antolatutako bertso saioko gaietako bat izan zuten Julio Soto, Alai Martin eta Igor Elortzak. Larunbatean berriz, Aimar Garaioak botatako suziriarekin hasi zen umeen eguna. Txikientzako antolatutako, puzgarri, erraldoi eta kale-antzerkia izan ziren besteak beste. Arrakasta handia izan zuten ere patata tortilla, kalderete eta ajoarriero lehiaketek. Eta azken urteotan ohitura bilakatu den moduan, musika mexikarrarekin amaitu zituzten festak Puro Relajo taldearen eskutik. Hona hemen aurtengo jaietan bildutako zenbait irudi!





NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41 Lekunberri
Fax 948 60 45 20 urzubi@hotmail.com

TAXILON 

Lontxo Otamendi Artola

661 202 249
(9 plaza)

E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Araitz



urrutia
enea

etxeko hestekiak

LEKUNBERRI

OTXOTORENA
okindegia

ARRIBE 

ADIII TLF BERRIA:
948 51 30 32

 panaderia okindegia

GALBURUeco

Egurrezko laboreko ogi ekologikoa

Alde Zaharra 50 LEKUNBERRI 31870
948 50 40 42



Ttutturre Nafarroako Hegoaldeko mendietan dabil hilabete hauetan

Irailean ekin zioten Ttutturre Kirol Elkarteko mendizaleek ikasturte berriari, Benasquera egindako hiru eguneko irteerarekin. Pico de Estós eta Salvaguardia mendi gailurretara igo ziren besteak beste.

Abendura bitarte, Nafarroako zeharkaldia egitea aurreikusten dute hegoaldeko mendietatik. Urriari Elotik (Monrealetik) Loitirako tartea egin zuten. Azaroan, Irunberri-Biotzari (Bigüézal) eginen dute eta abenduan berriz, Biotzaritik Salbaterra Eskarainoko (Salvatierra de Escarainoko) etapa.

Gainera, azaroaren 17an, elkartearen urteroko batzarra eginen da. Elkarteko kideak nahiz kide ez direnak parte hartzeko gonbita egin du zuzendaritzak. Datorren urteko egutegia erabakiko da eta zuzendaritza batzordea berrituko da. *"Batzordea berritu nahiko genuke eta proposamen berriak gustura hartuko ditugu. Gazte jendea gurekin irteeretara etortzera animatzen dugu"*. Ttutturrek antolatutako irteerak hilabetero izaten dira, azken igandarekin. Irteeraren ondotik bazkari baten bueltan elkartu ohi dira. Bazkaria eta joan-etorrirako autobusa 25 euro ordaintzen du lagun bakoitzak, 18 urtetik beherakoek aldiz, autobusa doan dute.

Beraz, animatu eta eman izena datozen irteeretan!

Informazio gehiago:

www.ttutturre.com

ttutturrekirolelkartea@gmail.com

Telefono zenbakia: 680 652 183.

Baraibarko Ines Iturberentzat pilotaren aldeko saskia



Asko izan ziren Lekunberriko Jaietan herriko Jai-Alai pilotalekuan jokaturako partidukoak. Eta urteroko tradizioa den moduan, aurten ere Aspek antolatutako pilota jaialdiarekin eman zitzaion amaiera festei. Hainbat zozketa egin zituzten. Artxueta harategian aurreko asteetan erakusgai egon zen saskia zozketatzeaz gainera, jaialdian bertan ere bertako produktuekin osatutako lau lote zozketatu zituzten. Larraungo Pilota Elkarteko antolatzaileak: *"Elkartearen izenean, eskerrak eman nahi dizkizuegu Lekunberriko eta Larraungo laguntzaile guztiei. Bai saskia nahiz Aspek jaialdian zozketatutako loteak osatzeko zuen produktuak eskaini dizkiguzuen guztiei eta baita zozketan parte hartu duzuen guztiei ere"*. Saskiaren zozketa igande iluntzean egin zen kontzertu mexikarraren erdian eta saritutako zenbakia Artxueta harategian bertan saldutako 2278a izan zen. Eta zenbakiaren jabea berriz, Baraibarko Ines Iturbe. Zorionak!

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitaratekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

German Lasarte
ARBEONDO
HARATEGIA
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

**aitz
berri**

edertasun zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
948 513 083
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

Nor da Nor?

Aurreko alean kaleratutako argazkia Lekunberriko Mitxausenea Kultur-Etxean ateratakoa da.

Ezkerretik eskuinera eta goitik behera:
Pilar Zurilla, Ana Betelu, Maider Igartua, Lorea Etxarri, Oihana Aldaregia, Nerea Urbizu, Maieritxu Goikoetxea, Ibai Aldaregia, Amaia Balda, Saioa Igartua, Rakel Zabaleta, Maite Azpiroz, Irantzu Etxarri, Julen Zubeldia, Juan Miguel Igartua, Rakel Navarro, Jaione Goikoetxea, Maite Mariñelarena, Aitziber Eleta, Uxue Azpiroz, Ainara De Carlos, Maria Gurrea, Maialen Goikoetxea, Jaione Aldaregia, Miriam Zubeldia, Maitane Urbizu eta Iosune Saigos.

nor da nor?

Nor da Nor?



*Nortzuk azaltzen dira argazkian?
Non ateratakoa da?
Noiz ateratako argazkia da?*

Bidali iezazkiguzu zure argazkiak denon gozamenerako mailope@labrit.net helbidera edo 638 652 339ra deitu eta kudeatuko dugu.



Lagunasesoría S.L.

Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es



SOTIL GARAJEA

BETELU

948 513 007

sotilgarajea@gmail.com



ABOKATUAK

Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua

Arretxea, 1º, Alli.

Tfnoa: 609 130 555

Hitz aspertuan



●● Agurtzane Altuna

Txintik esan bare

Alperrik aiko giñela aztarrike, norbean destiñue eskreittuta zeola esaten ziñun beti. Ados eon o ez eon, ez giñun bela pentsatuko berrobeigarren kapitulora allaatu baño len itxiko zenik zore liburue. Txintik atea bare joan zea gure arte-tik. Len ee askoik ez, hitz gutxikoa izan baitzea beti. Hitz gutxi, bekañe beltza, baño irripar ttikiet ezpañetan eta eskue goratuz beti agurre.

Txintik atea bare joan zea eta geatu geanok re ez gea txintik ateatzea atreitzen. Isiltasunek zenbat adierazteon holakotan.

Txintik atea bare itten giñun elkarrekin dantza ensaioa ttikitian. Ni nagi xamar ateatze nitzen eskolako komedoretik eta zok ez ziñun gogo izugarriek ekartzen etxetik, baño biziraupenan izenean ikasi beharra omen zeon ditsosozko inguruxoa eta hortantxe tematuta ibiltzen giñen. Dantzaako bikote izaten giñen, baino normalean ez giñion txintik esaten elkarri. Pañoloan faltan eskue eman behar izaten giñunean re ez. Izardittuta eukitzen ziñun normalean atzaparra, eta behin behatz punttek zurittu arte estutu zeezon ezkerreko eskue. Zuzen esango nuke Indianoetxeko zenbagarren harrien parean giñiezten askatu zeezonean; hue lasaittue! Eskue zuri-zuri, matallek gorri-gorri, baino ez nizon txintik esan. Geora bai, parrandan batean hizketagai izan giñun inguruxoa, nahiz ta sekule santan ez giñun plazan elkarrekin dantzatu, ingurutxoik bintzet. Hala re umetako bizipenak luzaro irauten due holakotan, eta guk ee ttikitako beitture konplize eta irripar lotsati haik giñun ingurutxoko pañolo.

Arnasa eten zitzaiten segundu batzutan istripuen berri eman zeenean. Nei bueltatu zitzaiten, zoi, ordea, ez!

Despedida batzuk ze despedida izaten deen hausnartzen aittu naiz oian gutxi laun batekin. Nola batzutan bihotzak atximur ttikietekin esateigun pertsona hoi ez dozola gehio ikusiko. Ta despedidaik bareko agurrek? Ongi itxi bareko itturrik bezalaxekoak, beti tantatxon bat begi ertzean; beti oroitzapenen bat gordean; ta behatz punttek zurittu arte estutzeko eskuik ez iluntzean...

Baakit ezteezola txintik esango bueltan eta begik itxita bakarrik ikusiketela berriz zore irripar xamur hoi, baino haxe nere azken ur tantatxoa Josu; besarkada bat.



AGURPLÁSTICOADIÓS

**Dagoeneko plastikozko poltsak ez dira doakoak
eta 2020an debekatuko dira**

Hondakinei buruzko Foru Legea

HONDAKINIK ONENA, SORTZEN EZ DENA

hondakinak.nafarroa.eus



Bideoa ikusi

Beteluko Udalak Uholde Jarduketa Plana onartu egin du

2015ean egindako Beteluko Azterlan Hidraulikoaren osagarri gisa, eta bertan bildutakoak oinarri hartuta, orain Beteluko Udalak Uholde Jarduketa Plana egin du. Azterlan Hidraulikoarekin uholdeen inpaktua murrizteko egin daitezkeen hirigintza aldaketak edo neurri fisikoen memoria egin zen. Uholde Jarduketa Planak ordea, uholde baten aurrean, kalte pertsonalak zein ondasunetan eragin ditzakeen ahalik eta gehien saihesteko, herritarrek, Udalak, nahiz Nafarroako Gobernuak jarraitu beharreko pausoak biltzen ditu.

Izan ere, 2011n Kantabriko Konfederazio Hidrografikoak Betelu uholde arrisku potentzialeko guneen zerrendan sartu zuen. Mikel Rekalde, Beteluko Udaleko Alkatea: "Gurean bostehun urtetik behin gertatu daitezkeen egoera bat dela aurreikusten den arren, horrek ez du esan nahi bihar bertan gertatuko denik, baina beharrezkoa dugu horrelako egoerei aurre egiteko prest egotea".

Baliabide eta zerbitzu publiko edo pribatuak nola antolatu zehaztu da, uholde baten aurrean modu azkar, koordinatu eta eraginkor batean jokatzeko. Horretarako, larrialdi

"Uholde bat etorriko balitz, Betelu eta bailara osoa isolaturik gelditzeko arriskua daukagu"

egoeran martxan jarriko den operatiboko arduradunek nahiz herritarrek, uholde egoeran herrian sor daitezkeen egoerak ezagutu beharko dituzte. Plan honekin, kaltetuak izan daitezkeen herritarrek babeste-ko neurri egokiak zeintzuk diren ere finkatu da.

Mikel: "Taldea bat sortuko da halako larrialdi egoera bat emango balitz, hartu beharreko neurriak hartzeko eta gainerako herritarrei egin beharrekoei buruz informatzeko. Beti ere, jarduketa planean zehazten diren irizpideen arabera, eta larrialdi mailaren arabera. Talde horrek harremanetan egon beharko du Nafarroako Gobernuarekin, eta uholde arriskuen aurrean diharduten erakundeekin".

Adibidez, ur maila puntu zehatz batera iristen denean, auzo bateko edo besteko bizilagunei euren ibilgailuak herriko auzo altuagoetara mugitzeko eta ondasunak bertatik kentzeko abisua emango zaie. Gaur

egungo teknologia berriekin, geroz eta gehiago dira herritarrek halako egoeren aurrean WhatsApp, sms edo e-mail baten bitartez ohartarazteko aukerak esaterako.

Egoera are eta gehiago zaildu liteke, uholde baten erdian bestelako larrialdi bat gertatuko balitz. Istripu bat dela eta, edo herritar baten osasun egoerak okerrera egingo balu adibidez. Mikel: "Gurean erreka herriaren aurretik ateratzen da errepidera eta hori gertatzen denerako Atalluko errepidera ere urez gainezka egon ohi da. Beraz, uholde bat etorriko balitz, Betelu eta bailara osoa isolaturik gelditzeko arriskua daukagu. Eta horri irtenbidea emateko zenbait aukera ere biltzen ditu jarduketa plan honek. Adibidez, Elostaren azpian, Aiztixoko parajea, Lezaetara irteteko mendi-bide bat dugu. Baita Lutola mendi lepotik Errazkingo errepidera ateratzen den bidea ere. Anbulantzia batek edo suhiltzaileek etorri beharko balute edo herritar batek herritik atera beharko balu, isolamendua saihesteko aukerak izan daitezke".

Noski, bide hori egokitu eta egoera onean mantendu beharko litzateke horretarako, eta inbertsioak egiterako orduan Udalak kontuan eduki beha-

 **ALIPROX**
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldiro
eskaintza bereziak

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA
 696 658 288
LEKUNBERRI

**AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15
948 60 47 24**


**TAXI
SOROA**
609 168 217
Bederatzi plaza

IORTIA EL INCA ESTRELA HORTZ BILPUKA
Juanjo Gaitte García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591
Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

rreko azpiegituren artean egonen dira ere Uholde Jarduketa Planean biltzen diren aukerak. Baita Plan Hidrografikoan uholdeen inpaktua murrizteko proposatutako azpiegitura egokitzapenak ere.

Beteluko Udalak Tesicnor enpresari esleitu zion Uholde Jarduketa

Plana egitea. 5.000 eurokoa izan da gastua, baina Nafarroako Gobernuak zenbatekoaren %80 diruz lagunduko du. Nafarroako Gobernuaren aldeko txostena jasotzerakoan, Udalak behin-betiko onartuko du eta plana herritarrei aurkezteko bilerak egingen dira.



“Beteluko Udalak Tesicnor enpresari esleitu zion Uholde Jarduketa Plana egitea 5.000 eurotan, baina Nafarroako Gobernuak zenbatekoaren %80 diruz lagunduko du”

Hostal Betelu

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Etorri eta on egin!

Erreserbak:
948513026
618557889

AMAIRU bar

ETXKO PIZZAK,
KOPA BERGIZIAK

948504352

MAILOPE GUNDU MAILLAGUN

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu?
mailope@labrit.net

LARRAUN GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

Gruas y Talleres LARRAUN s.l.

Lekunberriko industriagunea,
21. nabea
31870 Lekunberri
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356
Telefonoa: 948 507 229
Faxa: 948 507 281
gtlarraun@gmail.com

PUBLIZITATERIK GABE EZ DAGO KOLORERIK



ASOCIACIÓN
NAVARRA DE
EMPRESAS DE
COMUNICACIÓN
Y PUBLICIDAD

NAFARROAKO KOMUNIKAZIO ETA
PUBLIZITATEAREN BIGARREN SARIKETA

Informazioa eta oinarriak _ www.laasociacion.com

LA ASOCIACIÓN
En la cara de la comunicación

 Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

 Universidad
de Navarra FACULTAD DE
COMUNICACIÓN

 Obra Social "la Caixa"

DN
DIARIO DE
NAVARRA

 Noticias
Eres lo que lees

 SEIZ

 COPE

 CNEA

 PM trans

 MAILOPE

ALDAZKO PESTAK

9 | OSTIRALA:

- 12:00 Suziria eta ezkillen jotzea
- 12:30 Patata tortilla txapelketa. Ondoren bazkaria patata tortillak dastatuz
- 17:00 Herriko mus txapelketa
- 22:00 Afarria elkartean
- 00:30 Gaupasa DJ Bull-ekin

10 | LARUNBATA:

- 11:30 Erronda etxez etxe Iraunkorrek Txarangarekin
- 17:00 Puzgarriak frontoian eta ondoren txokolate jatea
- 20:30 Sagardo festa: txistorra, urdaie, tortille... Musikakin alaiturik
- 00:30 Gaupasa Oixanirekin. Eurre!!!

11 | IGANDEA (SAN MARTIN DEUNA):

- 09:30 Goiz soinua Larraungo Txistulariekin
- 11:00 Meza nagusia
- 12:00 Triki-trauki Dantza Taldea
- 13:00 Nafarroako goma gaineko sokatira txapelketa jardunaldia
- 17:30 Larraungo Pilota Elkarteko pilota partiduak – neskak palaz
- 19:00 Bertsolariak: Julio Soto eta Aitor Mendiluze
- 20:00 Pintxo potea elkarteko tabernan

12 | ASTELEHENA:

- 12:00 Salda elkartean indarrak berreskuratzeko
- 12:30 Herri kirolak. Zepatte engodu!!!
- 13:30 Toka txapelketa
- 14:30 Herri bazkaria. Ondoren dantzaldia DJ Bull-ekin

GAINTZAKO JAIK

9 | OSTIRALA:

- 20:00 Poteo herrikoia
- 21:00 Martintxoren jaitsiera Ondoren HERRI AFARIA Sonbelu elkartean
- 00:00 DJ TXOKO Amaitzeko, bakailu festa!

10 | LARUNBATA:

- 17:00 Merendola eta txokolatada Segidan, ume-jolasak
- 19:00 GABEZIN taldea Jarraian, pintxo-poteoa
- 21:30 Afari autogestionatua Sonbelu elkartean
- 00:30 GABEZIN taldea Ondoren, musika goizaldera arte!

11 | IGANDEA (SAN MARTIN EGUNA):

- 08:00 Suziriak
- 12:30 Meza Naguia
- 13:00 Hamaiketako eta bertsolariak
- 18:00 Gaztetxoentzako disko-jaiak



ekin
rotulacion
948 85 32 79



SAN MIGUEL
gasolindegia
Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu



CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com



OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884



tanatorios
IRACHE
Betidanik
ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA
LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
· 948 19 70 70 ·
www.tanatoriosirache.es

SUSTATU EUSKARA
NAFARROA HEGOALDEAN.
ESKATU SASKIA(K) 50EREN TRUKE ETA JASOTAKO
DIRUAREN %25 BERTAKO EUSKALGINTZARA BIDERATUKO DA.

5 URTE EUSKARARI PUZKA



KUTXA BELTZA
KUTXA ZURIA



URRIAK 25 - AZAROAK 14

aek **ERRIGORA**



INFO: ERRIGORA.EUS